Malezia sorta

Jon Arano

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1991 Jon Arano
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1991ko otsaila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Buhamiaren kantua
(erreibindikatuz)

I

Gu gira gu larreko buhamiak,
Beti danik madarikatuak,
Sakela huts bagabiltza guztiak
Bainan gaude, zinez, dohatsuak.

Dohakabe,
Dohakabe,
Nor da doakabea?
Ez ote da
Lur-etxe jabea?

III

Ontasunez biltzeko lan gaitzari
Eman zaizko, nigar-egingarri!
Guk nasaiki mozkortzeko edari
Jan hek aldiz gose ta egarri.

IV

Leherturik hor dira entseatzen
Urte-buru batetik bertzera
Lur itzultzen edo berdin jorratzen
Izerditan zotinkatzen dira...

V

Ereiteko sasoina dutenean,
Azitako aurdik bihi ona,
Ama-umeak hobe luketenean
Azi baino ogi-poxi bana.

VI

Iguzkia gaizki jeikitzen bada
Uriteak makur izarturik,
Azi horrek nola dezake bada
Nekoiz eman gosta den laurdenik?

VII

Uztaileko bero lazgarriekin
Omen dute sasoin ederrena
Ongi biltzen asirik albarekin
Lo badaude oren bat gorena

VIII

Denak sartu dituzten egunean,
Dohatsuki bizi uste dute:
Amen otoi! hats-artzeko artean
Horra nun den lana berriz aste...

IX

Guk ez dugu sekulan holakorik!
Ez girade deusez grinaturik:
Zer munta du, ito ala errerik,
Suntsi diten landetan artorik?

X

Nik ez duket, pleglatzearen bortxaz
Konkortua hor bizkar-hezurra
Ez dut behin sendi, oroit naizenez,
Larrupetik izerdi-langarra.

XI

Ar’zaitezte lanean, giza txarrak!
Ar’gogorki eta luzaz ere.
Zuer beha, gu Buhami ederrak
Kontent gira: oro dira gure...

XII

Zoazte, zoazte zuen lurren lantzera:
Erein, jorra, bit zazue hainitz;
Egun batez ene parten artzera
Zuen ganat eskale finen naiz.

XIII

Zoazte, zoazte, ezar lastoa metan:
Nik neguan hor duket ohea;
Behar hada, ene pipa piztean,
Lasto hortan emanen dut sua.

Dohakabe,
Dohakabe,
hor da dohakabea
Ez ote da
Lur-etxe jabea!

Autore ezezaguna
(«Mila Euskal Olerki Eder»etik)

MALIZIA

«Baina zu ez zara zu eta neuk hasten dudana zara zu»

J.E. CIRLOT

«Jauna, zenbat bertute egin dizkiguzun gorrotagarri»

MARCEL PROUST

Malezia I

Ifernuko lekuko behazun lizuna
(Urdindura ez da sekula seko lo)
Gure habia behar zuen lekuan.

Malezia II

Malezia ezkutatu nahian
Itxurak gorde ziren lehenikan
Gezurra egi idurian.

Besarkada malezia

Besteen txarrak pozten
Eta ongiak berriz zapuzten
Besteen ondasunek damutzen hauten horri:
On asko ikusi beharrean hago
Oraindik bizi haizen artino
Lehenagokoak zioten legez
Erosoenean orain habil
Etzanda lan dagianak legez
Baina habilean bideak
Harrapatuko hau
Gaur ere ni baino erosoago
Jana aurkitu duan arren
Eta eskerrak terreno guztiak
Berdintzen dituenik badenik.

Malezia IV

Jainkoa pekatari
Begi gorridun izuak nau bizi
Izena duen oro amen bai eta
Merezi ez duena izanen ziurrago

Oduan eta malezia gehiago
Hainbat eta simulatuago

Argi eta ilun printzak ene alprojetan

Nagusia duzuen euskaldunak
Harako hartan esan nahi nuena zen
Zigarreta zela hatzartean
Fedearekin eusten nuera menbru bakarra.

Hori lehen hunan Maria Bideetako guztizko
Markatik fuerakoak hautsiak ditudala
Uste dunan arren
Maltzurkerien liburua hasi
Besterik ez dinat egin orain
Heroiez soilik ez baititun
Elikatu behar liburuak.

Goizean goiz esna:
Gosaltzeko zigarreta eta kafea
Manera polita galtzeko
Bizitzagan fedea
Edota fe de vida

Nola nik uka egia
Batuko ditut poesia eta haragia
Jateko gogoak gizen-giharrak
Eta hezurraren salda salatzeko bidegabeak
Jaio naiz alproja
Itzal eta argiak ene alforjetan.

Hildakoei ez hildakoei ez
Bizidunei diet beldur
Ene patrikako argi-ilunak
Mogiarazten dituztenei
Hildakoei fitsik ere ez

Ezer ez dakit eta egiten naiz maisu
Bai ogi bai ardau
Tori gutxienez manifestu han.

Ez naun gezurteroa

Karajoaren mihiaren fandangoa
Ederra haizenala
Liraina haizenala
Zaila eta erraza haizenala
Bai eta zera ere
Betikoaren zale,
Ez dun zailik errazik dezenterik
Hire larrupean usteltzeko
Hiraz jaioa heu ere.

Ajatu hitunan gure kariziak
Hemendik aurrera to malizia!

Malezia saila

Ez dut maiterik maleziatsu
Gorrotoa gorde eta jotzen diot
Bere horretan misoginiak
Badu kabidarik malezian.

Seme xahutzailearen ortuan
Barra-barra hazten da
Sendabelarraz mozorroturik
Barrabas belarra.

Hi inbiriaz urtzen
Etxean edukitzea baino
Hobe sugegorria hezitzea
Hartzen haunak baino
Alde ederra uzten haunak
Amak esana, eskerrik ez zuri Jauna.

Definizagun Karizia: masailean, lepoan, ahoan, hatzetan
eta abereari bere partetan emaniko igurtzia maliziaz

Etsaiari asun erramua
oparitzearen sekretua
arnasik hartu gabe
ematean datza
eskutik hatzamarretara.

Goazen Liliputera
han erraldoiak izanen gera.

Ez nekien honen
ona zinenik
Nemo ttikia.
Hemendik aurrera
obedituko dizut.

Malezia XI

Mantxotu hadi edo mantxotuko haunat
Bildotsa eskubetean dudalarik laztana
Karezia esku batean txantxana
Eta bestean maleziaz aizto amoltsua

Gozo-gozo lohian

Gogoa desio lizuna eta zikina
Heuk esan bezala egina
Atzetik hartuko haunat
Sei bizio badizkinat
Eta ez hoberenetarikoa
Urdindura pozoindua
Zein ote dun ezdeus aitaezin
Izendaezin hau hain biziotsua
Nahitaez sortu izanaren edota
Bekatu kapitalaren hobendun?

Hire ziloak

Asunak garatzeko eta
Ez beste edozertarako
Hire zilo guztiak
Osin beltzerako
Heure betekadak
Kanpai honi bitartean
Oi amoros
Dagizkio lau tanto
Balentina bat ezagutuko
Bizia dinadan artean
Eta hura atzeratu mentala

Bururatzeak ere badizkin
Ez ezanala halakorik egin
Arrosa gorri fresko askoak
Ildoan ez hitzanala aldatu
Ez behintzat arrosa lepamozturik
(Nola dizkin hark pujak emango?)
Ez eta sikiera arantzarik ere
Ez baitzain ernalduko

Maitasun objetiboa

Kelly: «Eta orain agertuko dizut nire sorpresa...!»
Printzea: «Izugarria behar du izan, ezen bestela ez bait zinateke egongo hain disdiratsu!»
(Kelly erregina. ERIC VON STROHEM)

Aurrenekoz zu ikusten zaitut
astroen indarra duzu
Geroago nik uste zaitut
nonahi hegoekian ere
Han zaude zaren ez bezalako
inon han guztietan
honako begien jabe zaren eguzki
Zerbait oso beroa badatorkit azkenik
eta kreatzen zaitudan
gogoarekin borratuz ene
zarba begietan baizik ez zaude

Zakukada malizia

Aspaldikoa da gizakumea
aspaldikoak lurrin orok
eta aspaldikoa zaporea aspaldikoa usoa
aspaldikoak tratu txarrak aspaldikoa ura
tirria aspaldiko gaurkoa ere aspaldikoa
aspaldikoa halaber hire tristura
eta inbiria hurbileko eta aspaldiko

azentuaren azpian ezer
ez aurkitzea heure kezka bizioentzat lain baino ez
duk
ez diate lanik izango hik emandakotik
jaten ez eta lurrinik ere

Arriskua maite

Eskaintzakiko poema

«lo supe por un almendro
que la experiencia engañaba
echaba blancas flores
mas su fruto amargaba
como amargan tus amores»

(Herrikoia)

Kafe gaua tantoka
barne patioan
gorria eta beltza
a duo
pentsalizunak
bertatik barrura
eulitxoak ugaltzen
diren gordelekuetarat
non hautsontzietan malko
pipermiñ eta koñak
zipriztinak pausatzen
direla astiro
sexu berdinekoen

ordu aproposena denean
non gure haragiak
ez diren nahasten jada

Hi beltzunearena
hintzenan
zakil eta odol ilun
amorio kutsatuak
borrastu geninanean
beltzaz soilik ez
nitxonan jabetu
botoi oro zulatuz
lore granateak besarkatuz

Jaso dinat merezi ninana
ni ez nitxon inorena
haragi hondoan nebilen
anbiguo biraka

Surik bai?

Garai bateko oasiaren aldean
Ifernuko senperretan naukan
Heriozko mortu agortuan orain

Ze jendailarekin ote habil
Aingeru maliziatsua nitaz
Deusik jakin nahi ez dunanean

Goizargitzen zoan eguna zabaltzen
Itsas-zeru-zolak urdin eta zeleste
Deabruaren zainekoentzat norbaitentzat
Izango haiz agian agian inorentzat

Udak ezinezkoa din negua galeraztea
Joandakoak ez natxion asetzen
Pausu txarrean erori izanaz jabetzen
Kirats txarragoa zerion eder
Ustelari itxura txarrekoari baino

Ez ez dun surik
Ez emateko imintziorik
Kalerik kale habilenan horrek
Iraultzarako galdutako kaleetan

Alegia

Bizitza eta heriotza
Zein urruti
Zein hurrin

Norentzat ezkil-hotsak?

Bat edo baterengatik
Ezkilak jotzen
Darraiten bitartean

Kanpaia jotzen du besteren batek
Izerdirik bada han edo non

Norentzat kanpai-hotsak?

Egin-DA-DA
Urte-zahar urte-berri
Zerorrengatik ere
Joz dihardute
Kanpaijole ezberdinek

Hartzeak ematean du zaporea?

Bizitzea eta heriotzea
Zein hurrin
Zein urruti

Deabruak guarda

Inguratu bedi
nigana deabrua
besterik ez bada
ongi etorri

ez dut norekin egonik
eta bakardade pisua
baino atseginagoa
izango al da...!

Maleziarekin segiz

Eraman hintzan hirekin
heure musuak
zertarako ebaki iazintoak
errimak eta hitzak
horretarako daudenean?

Hamaika hitz aterarazten dituk
artezia eta trebezia
alor txikiak bazter huts
gizon txikiak buztan huts

Apirila lolitaren hila
Lohi ileak lurretik
Izarren kontaduria
Dotore egiten daki

Medizina bizidunentzat
Ez dea hildakoentzat
alferrikakoa?
Sendatu sendatuko
banau autopsiak
bizitzaz senda nazala

Jainkoaz libra gaitzazu

Ai jaungoiko gajua
fededunak abandonatutako hori
mundu honetan diate fedea
ai jaungoiko gorbataduna
piura hutsa arimagabea
aluminiozko eskumuturrak
eta portzelanazko lepua
hori al duk jitea eta
horiek al dituk konpainiak?

Abandonatu hau beharrak
abandonatu hau siniskeriak
Abandonatu eklesiak

Jainkoa da elizaren
lehen hitza.
Ez da gure garaikoa
eliza horren urrea.

Jainkoa edan
heuren buruak gurtu

Aita sainduak deabruagan sinesten du?
Funtzionarioek lanean ez baino pornografia
merkean
inor ez da giza goikoa
orok behean daude
jainkoaren tronua ere

Jainkoaren izenean
Bera izandakoaren
Izenik ere sikiera
memoriarik ez dadila gera

Lorearen baratzaina

Maite nuen
Ezin nion begiradarik ken.
Bi esateko bat
Bihotzekoa nahikoa.
Bihotzekoa batean
Bihotzekoa bestean
Behotzeko bi behinik
Bihotz harritua eta
Bihozkabea
Bihotzekoa bat
—Bihotz bana hamaikak—
Bihozbateko bi
Bihotzekoa eman dit
Bihotzondokoa
Bihotzontakoa zu izateagatik.
Galdu zaitut
Bihotz-bihotzekoa.

Maite zuen baratzainak lorea
orain aldiz maitatzenago du ostera
Lorearen baratzaina izatea
Lorearena bait da horrela

Garbitzaile ultramontana

Ideia garbietako
Putetxeko garbitzaileak dio
Eskailerak eta portalak komunak eta balaustradak
Fregatzera etortzea baina okerragorik bada
Etxe honen gaizkia erreparatu ezina
Giza hustutzearen alajak
Nahasturiko haragi izerdiak
Mahastegi okerren salda ozpinduak
Goizero kolpatzen naute gauetako mamuak
Gizona oharkabean noiz egiten den esango dut
Bost graziak kirtenarengan zelatan
(Heldu zein haur beti ar)
Parean jarritako edozer zulatuko lukeenean

Bada era bat ispilu horretan betirako geratzeko:
Norberaren zilueta haren hausturan iltzatzea.

Beherenera

«Norberarentzat asko behar duenak besteei gutxi opa»

Arto berde arto koskor
Itsaso ferdean uhinak koskol
Lizardiko sagastian egoskor
—Ustel ditezela fruituak
kimuak adarretan
enborretan hostroak—
Ez etxe ez eta etxekonerako
Wilderen erraldoi ankerraren
Ipuia mintzo

A demoni mundua
Usteltzen dituk txerremenak
Usteltzen txurten-txustarreraino
Badaramatzik banan-bana
Onentsuenak hatzaparretan
Grina alferretara

Hurrengo tramoak eragozten dik
gailurraren ikusmira
hurrengo tragoak errazten
amildegiaren perspektiba
Beherago, beherago!

Ez laharrik
Ez mazustrarik
Beherago amilduko banintz!

Mordizia

Horditu eredugarrien ziutatean
Historia da urturik
Arratoi beltzak estolda horietatik
Amildutako behien marru
Etengabea mamitzearen gisala
Jinaren eta Joatearen ibaia
Berez solidifikatuz doa

Liburu eta errejistroen ura
Hatzartetik ihesi
Ziutate polita panteoiak
Bentilatzeko eta diruarekin bizitzeko

Jendilaje hau —dio oinezkoak—
Ez zaio ematen malenkoniari
Jakin gauean ezer ez dela
Suertatzen eta halere ez dute
Beren bururik ateratzen
Zirrizkuren batetik

Purra purra

Haurrak haurrak haurrak
Parra parra hilaurrak
Ihaurkinaren maiztasunaz
Maitasunerako behar zutenak
Sufrimendurako heriorentzako
Ernaltzen dituzte lapurrak
Halamoduzko haurrideak desbarajusterako
Petralak baino petralago gurasoak

Malezia: Tximinitik gora dihoan kea ere ez hakidan
opako

Ifernuko etsaia
Paradako ahari errepeduna
Engaiatuko hituzke
Bai eta zeru-lur osoak ere
Mundu guztia eta beti
Engaina ezin daitekeenean
Maleziaren zerbitzaria
Maleziaren zerbitzutan
Berriak zaharrak izaten bait dira maiz

Umeak isiltarazteko mamua

(Zaldibiako esaldi batetik)

Isilik ez bazaude ume
muskerrak bekainetara
botako zaizkizu
belarrietatik sartuko
isilik ez bazaude kume
atea joz daude
arrastaka dabiltzan
izaki antzeko gauzak
Mateo ziztu eta Matoe
sakamentekasa ere
umejalea eta
lo ez bazara
iluntzeko hamabietako
kanpaiak jo arte
ez zaizkizu irtengo
isilik ez bazaude putakume!

Panderoari ahoa
zabaldu diote
isilarazi dute

Lo eskaera

Sustrairik gabeko aihena
Edozein izen duzu politena
Izatearen gabezia betirako
Zure posesionean baitago

Izerdiamets ala heriotza
Bizitzearen ordez
Duda eta mudantza
Esnatze ezabatu legez

Esposaturik har nazazu ametsa
Beste eratara ezingo duzu eta
Ahopez darizu zarena: loa
Ah izkutu-izkutuko zorion eta birao!
Zer dela eta ez nauzu ametituko?

Neba-arreben ohaidekeria

Xuhurra! patxadatsu gorde
dun nire hilotza
bizi galeraztaile horrek
bihotz gabeko muskarra
gorpu hondartuen irabazle
halako demoni muxarra!

ezkutuko minaren garaile
inzestoaren beldur haizenala
atearen krisketa zaintzen
nire arreba ankerrak
hats urruma jelatzaile
haztean ahantzi gara!

plater hutsetan sustraiak
gure artean abere
ongi gindoazen bidaian

Iltzeen uhartera korronteek
jaurti gintuzten arte
elkarjan lanetara anaiak!

Txalupaz promenadea
(Bikote preziatuena balantzan)

Non bikote ezkonberri paregabea arrotz sentitzen den, lehen aldiz gaua iragaiten duten bitartean kamino ertzean; zetazko paineluak aidean, txantxeta artikuluak atzean...

Pariseko bidea. Apuntadoreak dio: Lurraren errotazio higidura sentitzeraino...

Gizonari andreak: —debru liztorra!
(sexu zehatza) sar iezadak miztoa
piztu duk nigan
istripu ezezagunaren
izu eta luxuria bikoitza!

Andreari gizonak: —maradikazioa!
(modelo baldarra) porederik banu...!
barrabilean sartu zaidan
zakil tentea atzeratu
ze leku arraroa

ostaturik balego
akabatzeko hasitakoa!

Aingeru korukoak: — ...eta halere ludiziaren
(ikaragarri gure une zoriontsuenak...
perbertsuak) ausartena da zeruen errainua!

Narratzaileak: Mementu honetan azaltzen da,
estalierdia izan den eskenan sikopata
maskaratua; ikusleek konfundizioa
antzemango dute, oihu, kristal
hautsien hotsa, borroka, oihalaren
errebueloa...

Igeritera kondenaturik

Desauziatuak izango gaituk
Inork ezin abalatu
Gure gorpu ondartu
Ondatu aldrebes eta insolbenteak
Fakultatean akabu
Fakultate medizinakoan.
Hona hemen
Xahuketen ondorena
Fakultate medizinakoan.
Hona hemen
Xahuketen ondorena
Fakultate medizinakoan
Esperoan zauzkagu eta
Donanteok espoliatzaileak
Bihotz buru eta abar
Hauen hondakinaz
Burutzearren mila esperimendu.
So! abere zakarra
badiagula desioa
bukatua izango
den futuroaz

(harea ere hotz)
Zeinarentzat izango
Bait den gure paraderoa
(ura begien parean itook)
Ez da hondartzarik
Petrimetreok.

Maliciarik bage

Oraingoan seriyo enamoradizuac diyo Iztuetaren erara

(Leendabicicoz maite ote dedan
zalantzan jarri nauen
nesca pinporoshari)

I

¡Joan badijoan
Egun bacoitzean
Zagoz pollitagoa!

II

¿Nori galde orain,
Argui gabe aurgui,
Nun zaitzaquedan aurqui?

III

Gaudeneco baratzean,
¿Arantza ala ostajea
Nai degu ugalago izatea?

IV

Topo bacoitzean itz
Eguizu (¡Eguia zu!)
Aotik chorichoa.
Ichura osoz mintzo
Zaizu soin osoa.

V

Arboletic ezagun da
Eder baitan igaliya
Arguiac itzuli itzaliya

VI

Arantzan ni
Arrosha zu
Onez-onen
Ari bioc
Chori chiqui
Choricho bi

VII

¡Biotz onen
Lapur-chori,
Chori-chiqui

Chori ori,
Arantza au
quendu neri!

VIII

¡Zapaltze’zun arearen
Erratzalle icenda ni,
Lore gorpuzño orrec.

IX

¡Picu-picucho melatua
Naducazu camelatua
Cholindua-choratua-picutua
Chorabiatua!

X

Ordain-sariric sariena
Ceran ceranean cerana
Sareetara izan nadiñeena
Zuregana zure zureena

XI

¿Zu ote cera
Nic maitatuena

Ala galdera da
Nere leena?
¡Segur naiz: maiteena!

XII

Naucan locartu eciñic
Aut matte urrutitic
Ondo matte ere
Beatz bat moztuco niñaque
eu maculu izateagatic

XIII

¡Etor badatorren
Gau bacoitzean
Nauzu cimelagoa!

FAMILIARTEKO GORROTOAK

«Etorriko dituk euskal zakurrak
eta euzko hienak»

GABRIEL ARESTI

«Ote da rnundu huntan deusere gai denik
Judu herratiari konpara daitenik?
Nik ea dut uste baden nehon miserablerik
Haren zortiari hurbil daitenik».

Judu Erratuaren kantuak

«Mihi gaiztoak burniak aina erahil»

Koadrila koadrilateroaren kordetara

Joan ziren Etxe honetako pakeak
Barrenak ez diate agintzen eta
Ezdeus eta ezer gutxiren jabe izanagatik
Besteok ere bagarela

Ez bide da bidea ihesbidea
Behin behar zuen eta
Erakutsiko dut benetako muturjea
Herri honetako segundako hirritarra
Bat bada, ni
Ez oso konforme gainera

Bakarka joateko hobea
Ezen ez nahasteko artaldea
Intrigante eta sesiante
Erropa zuzenik ez eta
Asko inportik ezta
Diote naizela moralbako gaiztoa:
Tronpaturik dabiltza hori dioten horiak
Zorritzu itotzen banaute ere
Zorritzu beti eta gero ere

Lerratzea omen derrigorrezko
Beraiek hala lerratzen direnez
Posizioak hartzeari ez
Posizioak hartzeari ez
Diote ez uko eginen

Ager dadila holako eta halakoetan
Malerusagorik munduan inor baldin bada
Eta esan ditzala esatekoak
Ez da gutaz desgraziz
Guk hainbat dakikeenik

Ez gara hain inuzenteak
Zeruertza aurrera egitearekin
Harrapatu ahalko dugun ustekoak
Etxealdeari puska eransteko asmorik?
Zeinek galde eta hik!
Fuera hemendik saltzaile farisauak
Alde arnasa ere
Opa ez diguten perillanak
Ospa kasta menperatzaile guztien
Pelaje guztietako heredero
Eta gerorako sostengatzaileak

Ez eta «geure» izenez
Baina handiki azkenez
Baizik eta laiarik ez,
Traktor, aurrerakoi, geurekoi

Orhoit hilçeaç

(Arestiri omenaldi)

Arestian calachori ito bat çen
Euscaldunen çeru çurian
Igeri ahuçpeç
Çe eç badaquiçu ere
Quixano jaquin behar duçu
açquen finean
Calachoriac, usoac
Eç direla chori eç uso
Icusten dituçun horiçta horiec
Çeru çolan daudeneco
Dabilçaneco hobe esan
Hutsuneac baiçic eç direla

Eta eç da deusic
Hustasunetic landa

nik uste dut / ikusten dut / nik uste dut

Arbola gaiztoa

Noiz zabalduko ote da goiz hura
Zeinean egingo duten arbola gaiztoaz zura
Ezpal nimiñoenak surtara deliberatu «anaitasun bilkura»k

Arbola gaiztoa beti pronto arbola gaizto izateko
Ez egidak uka errediola
Ez gintuztean alferrik aspaldian
Sodomita izan horratio
Mahaikide bat sobrante eta
Arbola itsusi gaizto halazankoa
Ni izan behar orain ere arbola gaiztoa

Noiz zabalduko ote da egun hura
Zeinean Jainkoa gorrotatu eta
Lagun urkoa dugun maitatuko

Anaia bi

Miseria gorriena bizi diagu
Bi anaia gaituk pentsio oker honetan
Etorkizuna besterik ez zigutean utzi
Infernurako eskala gure aurrekoak
Hatzazalagaz hesteak engainatuz

Etzalekuan bota diat ohizko eguna
Zapata pare bat gu bion altxor bakarra
Gaituana diagu heredentzian
Bapo moldatzen gaituk halere
Gauezko fruitua heltzear
Bata ez denean bestea
«Ohe beroa»k eusten ziguk-eta
Laister izango delakoan nire pasioen txanda

Ez-izate batean

Joanda Bertako
Begi urdin urtuekiko
Agure zimelduenak diotenez,
Aintzinean heuren buruen etsai
Eguna joan eguna etorri
Remisiorik gabeko Itzuliezinean,
Ibai mingotsa iragan eta
Mugagabeko denporen erloju barik,
Ikusi tribu galdua,
Malenkomunitateak buru-jasotzea
Jainkoek berek nahiezta,
Basa eta mortuetatik galdezka
Bagara Ez garea ala Zer gera?
Herri haren harria,
Txarrean galtzeko zorian.

«Geroa ez da geurea»,
Esatera ere esatera zihoazenean
Ez ordurarte eta orduantxe
Erreparatu omen zuten

Ortzean zintzilikatutako

Bost adarrekiko izar

Gorri gorri gorrian

Landu dezagun baratzea, Kandido

Nekaturik jaio ginen,
Hainbeste neke hartu zituzten
Gugatik gure aurrekoek!
Sisiforena modukoa haiena
Bizitza aldapatsua,
Behin eta berritan,
Majina bat bider
Soro barrenak
Jaso omen zituzten, ermano.
Begira baleude!

Hamaikatxotan esandakoa
Goiza zabaltzerako jeiki,
Eta izerdi patsetan ibiliagatik
Ilunabarrerarte ibiliagatik
Ez eta gatz-ozpindu
Batentzat ere lain egin.

Lahar malkar da gaur ordea ordeka
sasi-bete itsasoa

Lurrean nahiko lanik ezta
Ilargi bidera doa
Gizateria osoa

Landu dezagun baratzea
Analizatu gabe lan egitea
izango da bizitza eramangarria
egiteko era bakarra baina

Portuan inor eta ezer laga gabe
Hil den arrotza bezain
Abandonaturik halen ahaleginak

Nekazariak haiek
Gu nekazaleak
Nola aberastuko langilea?

Gazteria alargundua

Soinean tabako usaina
soilik zekarren
gazte idealista zelakoan
gure «petit poète»
bakarzale eta bakarra
asko ez dagoenetakoa
besteak ez bezalakoa zelakoan
beste inork egin ez zuena
egin zuelakoan
eta akordatzerako zahartua
zetorren zure etxera Ama
biharamon dardarretan
desegoki moztutako florea legez,
eta zuk leherrez
eskuak garbitzeko
etxean sartu aurretik
auskalo zer zekarkien eta.

Hau da gazteria!
Denak hilzorian

eta denak beroturik.
Ez ote ditu
eramango uholdeak!

Baratzaren erdian

Haurtzarora behatzen dakigun bakanetan
Begiak betetzen zizkiguten
Ilunabar haien eta bestordu hartako
Biharren oroitzapen orok
Ziztu biziaren bibelar minak
Estali dituela dakusagu

Ortuaren orduan txondarrak kee
Egunaren ihaurkinei arratsak su damaienekoa
Ez dut ezer malenkoniatsuagorik ezagun

Geroztik erori dira bidetxurrak ere
Ez gara inoizkorako osatu genuen estanpan
Xahartzea urteetan sartzea
Laineztatze eta leziatu izatea
Oroitzapen txintxo haiek
Ximaur piloaz ongarritzea da.

Azken hitza

«Ez aita» nuen aurreneko hitza
obeditu agindua geroago
ze erremedio!
aitarena zen azkenengo

ez beste batzu bezala
«bai aita» sorta maiorazkoak
laister prest ahoan
esana sekula ez betetzeko

zertarako «bai aita» «ez aita»
biok berdin kobratzeko?
nik jipoia nozittu eta
«anaiak» saria jasotzeko?

Lo hobeto dagoenari

Aita nuen nik esnetxarduna, beti ozpin beti gazia
Hark agertu zidan bidea, bait zen miseriak ikasia
Oi ene aita, nire egunak ere aurrera doaz ia
Baina zugandik hartua bait dut edertasunerako grazia
Nik amaieraziko dut gure enda, zuk ereindako hazia!

Ez naiz

Ez naiz nahien
enia ene ia
enean aina
ene ia ni

ia nirean
nire anaiena
ia ni anai
nahi aina ni
nirea ez naiz
ni ni ni ni

Eguberritako kontu beltza

Amak esaten zidan baina nik ezezkoa itsua nire tortura.
Otamendiko pipiak jotako jauregi harmarriduneko
maizterrengana ez hadi ingura.
Gau hartan berriro anima tormentatua oliatu arte
horditua oldar txeposoa erori hintzean nortasun
agiririk gabe betiko erruan estropozua harrizko
kanpo lehorreko irlote parean.
Ganbara okaztagarrian hire herio aurpegia irakurtzen
zekitelakoan heduzkan zai babuak.
Errielak lepahezurra kolpatu zian ordurako gauzak ez
ziaten enkajatzen Aizkora batek gizartearen arauak
apurtu zizkian.
Isatsdunak Paradisutik uxatu gintun.
Ikus ezean ez dakik sukalde hura baino badituk ikuilu
frango garbiago.

Ze jende eta ze bizi moduak atso mozkorra
balantzaran
etxeko nagusi egoskorra eromenean seme
inozoak
alabak putak eta tripako minaz hildakoa txima
guztiak erroetatik aterata. Betidanik 20 Km.
geratzen zitzaizkidaan untziratzeko emeen
ortuan.
Ze arraroa! amarraturik egon eta joatea biak bat
hituan
nabigatzen zetorrean nire arren ameskaiztoa.
Bost
langa dizkik gartzel hark imanatua aurrenekoa
okerrena
diztira gabeak gainantzerakoak ez hadi irten
azkenekoa
nolakoa
den frogatzera infernu hartatik ez zegok tornatzerik
Gure itzalak horma haien kontra printzatu genizkian
ez
ginenak.
Ez hadi haruntza abia doilorrak kutxiloz neurtzen
dituk
han Tira ezak faka herdoildutik, hi!

Amak esaten zidan baina nik ezezkoa itsua ene tortura

Giztxarra berriro hamarrera.

Zakurrak erotu

Zakurrak erotu zireneko gau hartan
eskufrenuak emanak zituzten autoak
eta aldapa behera abiatu ziren halere
hura zen zaunka egitea gau osoz

Aideak mozkortutakoak nork isilarazi
eta gizonei zertarako balio zieten
hainbeste etxe eta harri
hainbeste lan deskantsurik ez bazuten

Antolatu ziren zakurrak isilarazteko
borondatezko gizonen trenakadak
eta zer uste duzue egin zuela gizonak
herioaren hurbiltasuna adierazten zuen
zaunkadez arduratu ez noski
hilezina izan gaitza hilezin
eta halere zakurrak hil

Dakienak ere nik dakidana ez daki
horretan alferrik dabil

Ehize ikasketak

Lehendabiziko aldia da
ama katu nabarrak
bere kattartxoa
gauez ateratzen duena

Oi hori bai ezetz!
pausu dardarati horiek
ez dira prezeski
beldurrak eragindakoak:

Ai jakingo bazenute
beltxaren dardarizoen zioa
zer sentitzen duen
Bere geroaren mota guzietako
ehizen aitzinean!
Ai oi ei

Orenen zakurrak gure pertsekuzioan

Zerua goian
Lurra hemen
Aterrunik gabe
Gu debalde

Egunen batean nahiko zaitut
Ifarra galtzean ero eskaintza
Eta asasino bilatuz aterrun
Non gorde non deskantsa
Maiteko zaitu teilatu eskaratzak
Bizirik inor ezingo baita geratu
(Gu bion bihotzek bi teilatuen juntan)
Elektragailu mortiferoak salbu

Krimen bat egin banu
norbait gaseatu
labean erre banu
nazi banintz ere
androginoren batekin oheratu
bezain oker erresakan

utikan
nonbaitean aizkora da lanean
haren hortzetan nahi nuke deskantsa
alde batetik ezik ingura nazala.

Maiatzean gaude

Maiatzean gaude
gudurako eguraldi txarra
izaitearendako aro makala
eta bizitzeak soilik dardarak
tunbaz hareagoko loak
eztarrian gargarak

Garai batean ere
ijitoak bere amona
maiatzean jan ornen zuen
nolabait domatzearren
tripako garraisi eta hotzak

Oinez mendiz mendi
doaz isilikako amonaxarrak
Nafarroatik Behe Nafarrora
beren umeenganat

Apirila hilik krudelena
izanen da
baina, mon ami,
Ai, maiatza!

Horratx hontzak!

Agustiña
h’urratx h’urratx!
badatozela hontzak!

Ijito madarikatuba
kasta gaiztoaren umea
ikusi al duk ene laguna
akerbeltzaren moduan
okotzpean bizarra duena?

Ai etxekoandria!
sein gausa ederra den gisona!
Batiste gisagajoa Belaunsan hil sena
eskerrak ohe onean hil senik!
ijitoen pakea hor saude nonbait

Ijito herriaren paraderua?
beti bada zenbait eskaratzetan
hainbat sukaldetan falta den argia

Presentzia autortua

Bihar ere han egongo duk
Aitaren etxea bihar ere han
Zakurren zaunka uretan ehortzia

Ez ahantzi hiltzeak ez dakargula irribarrerik
Ederki izurratu behar dut guztiz ahalduna
Besteen buruaz nire ezpada ezpataz nire buruaz
beste

Maiorazkoari

Arrats gorriak gau letala
pasuko bidaiarientzat
ate-zabalirik ez daukan
herriaren aurka ni.

Maiorazkoa parasito harra
brea biguina zapaltzen doan
ene itzal aldrebestuak
belarriari fru-fru xuxurlatzen
ziok ordu berean

Eskertxarrekin ordaintzen didak
isladatu horrek
ez haut apropos ez eta ondroso
erabiliko hinduket geldixeago
esango bahida oraintxe
zer naizen edota izango

etxearentzako maiorazkoa ez baino
etxea maiorazkoarentzat
nigarrez ari zait zakila

nigarra dariola
nigar egiteari
ematen zaiola
malko bakoitzean
nire pistola,

Ezkutuan da familia pobrea
eta agerian ez da malkoa malko.

Amarena

Igandea zabalduz geroztik
Etorkizuna orbaindu ez ezik lausotuko
Zigun amaren esanak
Maonesagaiak eskuetatik irrist egitean
(Ni faltatzen naizenean...)
«Gure gizona zenari ere gauzak iheska
Hasi zitzaizkionean izan zian errematea»
Amarik onena eta ni berriz marikoiena
Sikiera bandidoena banintz
Gure ama bezalako bat konkistatzeko

Untxitegian tra-lara-lari...

Ama Euskal Herri Ama Euskera Ama Untxia
Ama jatekotik eman didazuna
Panpiña zahar lizuna
Aurrerantzean ez dit onik egingo
Garai batean irentsitakoak
Ez diete lanik emango
Haragi ehotuek urdail asezionei
Dio eskertxarreko untxikumeak

Gure amaren bizitza tristea
Beti jana tartean ibiltzea
Berak gogaiturik jana jarri
Jarritako jana jan guk
Hobe zukeen untxetegian
Erditu orduko irentsi bagintu

Proterboa

Umeak negarretan edaleen auzotan
Galtzen ari haizen sentsazio garratza
Hobe huke kokotzik ez bahu
Usuri barearen ispiluan ederrago ikusten haiz
Gizon txarraren papera tokatu zaik.

Kamiño zaharretik

Ero solte bat dabil Gipuzkoaldetik
San Juan zeritzan apostolu aluzinatu
Haren irakurgai apokaliptikoetatik
Edan du Mandar itsutua bailitzan
Daraman zamaz ohartua bakarrik
Eta lan gaztigatuarako jaioa dela
Eta idi kapatua bailitzan
Gizon arruntaren antzekotzaz oharturik
Erotu beharrean dabil
Poeta-txar bat da Bozik gabekoen ametsa.

San Juango kamiño motz honetan
Bizi naiz joan eta jin adorerik gabe
Argi horiak daramate nire itzala
Eraman dezatela joan joan zaitezte
Besterik ez duzue egiten jakingo eta
Munduko edozein lekutan koka nazakezue
Txiroei dagokien bezala pentsatzen.

Parrizidari

Aurpegi partez eraikuntzak
Armiarmen buru-zapitxoa argitan

Jo ezak seko-akatzeko
Eme haurdunak txertatutako
Pozoinaren antidoto
Okerrena duk desorduan balkoiko harrittoak
Zupatzera etorriko duala
Seme hiltzailea

Oraindik etxe batean
Ez diat ezagutu seme batek
Horrelako mihirik dantzatu duenik
Bat edo baten falta dagoela
Seinalea baduk bai hik

Intsentsu egunak?

Elur bezperak eguberri grisak
Bere zauriak bakarka miazten dituen abere
bilakarazi nauzue —(bi atari dituen komunitateko)—
Etxetzar honetako —(ar zuri higuingarriak
Pestea bezala zabaldu dira)— apopilo
gaizki hezia bere harrapakina hortzkaka
zoru zolara —(zornaturik zerrautsa errontxak)—
eraman eta isilean irensten
duen hiena —(elur-bezperan kanpoan bezain
hotz da etxea)— agin eta betaginak, geratzen
zaizkion ondra sitsen piltrafa bakarrak —(erropa
zabaltzeko pintzen antzo pipiak joak)— txikitu
nahirik dabil

Hator, hatorra ez da inoiz
nireak izanikoen deboziozko errezo
Hango aldiak egin ditut eta
Hator, atorra, abriga nazak gaitz guztietarik
Libra nazak egin ditzakedan neguzkoetatik.

Trapu zikinak agerira

Gure halako nintzaneko etxea atzean utzi nuen
Zerbait ahaztu dudan susmoa dut bidaikide
Gogoan trumoien eltzetik irtetzen
Nintzen bakoitzeko danbada

Osaba zakarren etxekoneko baratza
Erraustea nire hoben barkaezina omen
Soinean duen guztia daramadana hezur eta azala naiz
Eta auzirik-auzi ez jakin noiz aterako garbi
Aitzin pekatuak goiak ezartzen didaten pisuaz
Eta besteak nahikoa ezta gizonek ezarritakoez
Salbu ateratze adineko lasaitasunik noiz
Tartean badira deabruaren sasi-abokatuak

Galdua aurkitu zorian

Zapoari bizitza barka egiozue!
Desio bakar baten eskaintza hark
Bietatik bat aukeran ofertatu guk:
Edo mundua aldatzen zigun
Edo gure sufrikarioekin akabatu.
Hala zer eroak! Atabutean gaude orain
Harpekoaren burutazioa
Hark bigarrena hautatu. Hobe genuen
Zapaldu ezean, berarekin ez bagina tronpatu.

Erosi beldurrik gabe

Erosi beldurrik gabe deskarrilamenduaren
eskenatokirarako txartela
protagonistatzak on dagiala
Gabeziaren jabe errekan nahi hinduke
txakurrak lehorretik
Ahalko balute hipan agindu
amodioaz barre egiten duten malgizonak
Beroien izena nahi liteke hire jaun
Nahikoa ditek. Erretratatu haute.
Hiru argazkiz aurrez eta bi masailak

Emaiek hire gorroto guzia
Gizarteari zor dioana zeinuan.

Katakunbe ibilbidea

Katakunbetan pasiatzen
Heriotza mastekatzen
Libre naiz
Nire galerak aukeratze alde

Ni ere aritua naiz
Egunak salbatzen
Gura nuena ahienatzen

Bizitza sekula argitsuegia
Izan ez den arren
Beti izanen dituzu
Itzaldu litezkeen
Ipurtilun gordinak

Ilun bada ere
Orain bizi naiz
Beltzunera ohitzen
Anaitzen harekin

Bizitza dator
Herioz isladaturik
Hilosteko ilunak
Ez naute horrenbeste
Minduko

Jon Arano estropozuka tanatekan

Bata eta bestea

Oro lainotan lo dago?
izua barruko prozesioa
harrobizuloan ez naiz bada
beldurrak zenbatzen ari?
Mendimaldatik irristadan
gauaren azken marra
edozer baino sarkorrago

Azken batean urrunetik zer naiz bada:
argi bakaneko mutikoa
Beldurraren aidean
argi multzoetatik
azkenekoak itzaltzen dira
bat ez ezik:
Probintziako txaleta
(tabernakulo dotorea)
lapurtuko diotenaren
beldur den jauntxo aldenduaren
(Jainko ezezagun horren)
argia.

Aitaren eta semearen

Gure betiko joxemaritxo
bahatorkigu orain ere
telak eta ezer ez eskaintzen

Bainan aitaren guk ez dugu
mantelean jaten
Plateren azpian mahai garbia
ezbada mahaiaren gainean
plater hutsa

Bainan aitaren eta semearen
eskailera unibertsala igo
eta mahaiburuan inor ez ogia bedeinkatzen
aita ahalguztiduna balitz
zein hobeago genukeen

Bainan aitaren guk baino lehen
gurutze santuaren seinaleagatik
motibu gutxiagorekin egin zenuten
etxetik atera eta munduaren aurrean
Zer ez ote zenukete eginen
orain eta hemen

Okotz gabekoarena

Ilunenean arboladi aldetik
Txorien ihes doazen txio
Hezeen ordutan
Lurpeko urak eta soberakoak
Nahasten diren ordutan
Beren usai partikularra
Duten ordutan
Nire bizarra ixten dihoa
Etorkizun-ilusiorik gabe

Lagundi arriskutsuak

Ur garbirik ezin atera
herio tzarraren koba zuloetako
sustrai iluneko sesianteetatik

Estraina sokatik tiratzen zidaten
katez eta orratzez lotzeko gero
urkatuen korapiloetan itotzeko.

Zer egin ote nien
nire buruaz beste
egin nezan
nahi izateko.

Denok ere
ez ginan oso gustora
Ordea, anaitu ezin diren
mundu bietakoak gara.
Aze belarriondokoak
gaitz gazi haien kulpantea
harrapatuko banu

Hotel Terminus

Sirenotsek hausten dute ziudadetik
Zapelatzarrek etxeorratzen gainetik
Kazkazkaz egon naiz Estazioko terminalean
Penatu nau: erropaz arin neguari ihes egin ezin
Azken trenari paso damaiot ezen
Biharamonekoak bainarama nire benetako herrira
Zorte ona desira gaitezen kamarada eta
Politika amorosoa oraino inkubatubako begientzat

Lasterregi

Lasterregi dator neguberria
udaerdia ihartuz
belarren egunak moztuz
hosto eta arbolei
urregorri fruntzeak emanaz
Lasterregi joan da udaberria
tenaza batek hartzen du
Hau dioenaren eztarria
egunero kuestionatuz
heriotza eta bizia

Bere buruaren lagun txar
Hilobian lo hobe dagiana
Eguna etorri eguna joan
Geroa da biharra?

Gu bezalakoei
lasterregi ezbada beranduegi egia

Geroa da biharra?
noiz joango ote naiz ibai ertzera

non konplizeak ditudan
mudakor diren
urak orduen akatzeaz?

ur mina itsas untziak
lur mina buztinezko kanikak

Txastona

Garai arruntak
aro modernoenak
eguraldi zaharkituak

portzelana txuriak
burges zintzoen arasetan
euria
tilki talka tilki talka
geroz eta aguroago

sikiera egoera hau
apurtuko zukeen egundoko
erlojeri eztandagailurik balitz!

Igotzera atrebitzen ez den bisita

Gauetan eta ustetan biluzik
norbait jeisten da larri
Dioskororen etxe kantoi pitzatu bietatik
Korrika patsetan maldan behera
Burua galdu ote duen edota
Badaramanik ez dakit
Hankak baditu bederik
Eta etor lekiokeenari izua

Kaminoko zuloko putzuan
Zapata sokak eta auskalo zer
Gehiago utzi zituen bart berant

Pausu estuxeak joanda gero
Txoratzen bueltatzen naiz ohean biltzera
Amesgaizto ttipiz osaturiko
Halamoduzko bizitza konpontzera

Eta zein da pobre esan
Ohetik altxatzen ez den hura

Erregeak bilutsik darrai

Erregeak bilutsik darrai
Eta ez dugu aurkitu
Ama-semerik oraindaino
—Sabelak ez dira alokatzen halako
umeak ernaltzeko edo—
Hau da
Ez dugu inuzentziarik aurkitu
Egia biribila esango digunik
Baina zer ari gara
Matxinsalto muzker eta suge
gure predikua narrazti guztiek darabilte

Ciao, ciao

Hau arreglatuko duenik ez da jaio
Amets berdinetik esnatu eta
On egiteko egitasmoz:
Odolemaile gara izango
Odolaren eta guztiaren
beharrean bait dago
Txorizodrakulardo!

Hori ere bada-bada
Gora beren errebajak enkanteak merkatualdiak
Behera beren beherapenak
Gora ta gora behazunezko ilargia
Na noites da luna chea
llouran os porcos elegantes
Resquebraixanse as mandíbulas suas
Matemos aos elefantes
Gora ta gora nork odol gehio
Emangora jolasten dutenak

Vudú euskaldun

(Konjuro eta blankoa)

Araratko san miel aingerua
aingeru guzien goiaingerua
(anker eroriak barne) moztu etsai hauen
diren eta ez direnen lepo eztarri eta buruak:
(Segidan, partehartzaileen ezpainetara etorriko dira
azkar asko beren arerioen izen-ezizenak. Ahalik eta
erridikuluen, jakina, konjuroak efektua sor dezan)

(...)

Jaitiko gurutz eta suge horrek
poltronadunen mailu
bidegabekerien korrejidore
ez utzi titererik burudun
salbu gu eta gutarrak!

(...)

Zulatu orratzez kolpatu ditarez
biluztu jauntxoak lerroux inpernus negux
ez zarete deus itzal-axal eta hexur
zakur uzkerra angelusaren orduan
bakardadean fumatzen gixaixo arlote debruk

Virgo veneranda virgo potens
ora pro nobis miserere nobis
kyryeleison krhysteleison kyryeleison
kunpli bedi zapalduon mendekua
agnus dei quitollis peccata mundi
agnus dei quitollis peccata mundi
ni hor eta hi hemen
lehen farrez orain nigarrez
xaguxarrakin ezkondu nahi ez!

Bethlehem oi bai bete-beten
buruen zakua bete lehenbaitlehen
dona nobis pacem. Amen.

ZERBITZARIARENAK

«Bizi bidean noa miñez beti:
A! miñ au iltzearren ilgo banintz...»
JOSE «ELTZO» AZTUAZU

Gorrotoa iraganari, mogiezina bait da,
aldaezina.

Zerbitzariaren burutazioak

Bizitza ez duk
modaz kanpoko taberna baten
tendatzekaldetik
zerbitzari bat
hondakinak ateratzen

Goi amets
lurrean geratu
haiz trakets
Hemen galtzen ikasten omen
ikasle aplikatuak gerade

Gizonezkoak bakarrik
aurkitzen dituk zerbitzari
Beste sexuaren bila habilelarik
Probintzietako gaua beste frente bat duk:
Gizonezkoentzat bakarrik

Munduaren ipurtzulo inguru
Isatsondo du izena herri honek
burjes

eta ni bizi naiz hango
bataz beste jai eta aste
Neguan negua eta udan uda delako

Beti hutsik Isatsondo
eta barruko dizdira ez baino
kanpoko zikinbrilua
da errainu hori
baldres

Euria du ari

Duelako sofri
Ez duenak balekik
Izarren ausentziak
Gauean dirdiz

Euria ari du
Euria du ari
ziudade honetako euri busti
hortz-ikaraz goizeko
bostetako zitara
heu bakarrik hator

Begira zenbat estimazio
gordetzen diodan lur honi
dudan ahalmen gutxiarekin
hanka-puntekin
ostikojoaz noa zoruari

Terrorismoari baino beldur gehiago
dio oinezkoak atzetik datorkion zaldizkoari
—Noizbaiteko batean bere aurpegi makurra—

garraisi batean galdu beharrez
irabaziko banio

Auspoak haize eman behar handirik ez zeukan
kixkaliko naun bakardade honi

Zerbitzariaren patrifiliak

Fobia lokalen partaide patriaren zerbitzari
Ate korredoreetatik dabil zintzur estuetatik
Eta hori ez zaio gustatzen neurosi puntuan
Alerjiak sortzen dizkiote ertzak
Berarengatik sentitzen dugu ez du aurpegirik
Pozik gaudek hi ezagutzeaz
Desaiogu ur-zirimolatik libro garen arraunlariok
«Bere» gainekoen eta gainerako
Hamaika heriotzen ordenetara
«Naukate» soilik idatziko du soldadutza zerbitzuan

Hildakoaren seme:
Nor ez da beldurtzen pizka bat bederen
sukarraren menpe idatzitakoa irakurtzean?
Itzal txineskoak sortarazten dituk
Beldur haiz kreatua duana hotzean ikustean

Burges-sistimaren zutabe ustelena
Eskerrak ematen dakien morroiarena

Oinez goazela
zimaurra ezkerretara
eskubitara burgesa
Pasa egin behar eta
ebitaezina kaka

Botoia bazoazenean korroka
Ojala baztozenean hasperena

Azken morroia naizela dakitela
Deitzen naute hipokritek nagusi
Nahiz nire buruaz ezpada

Zeren nagusi naiz bada?

Ez da berriketarik
Bizitzen ez dakienak
Jakina hiltzen dakiela
Balada baladi baledi

edatea prezisoa da
esnatzea bidaiatzea ez ezen
behin esnaturik
zer egin
edateari
ematea baizik

Beti obretan Herri honetan
desegin eta berregiten
berregin eta desegiten
eta zertarako
diferentziak ez berdintzeko
beti obretan beti eragozpenetan
zerbait aldatuz ezer ez aldatzeko
Zaila izan euskal ikuiluaren
kiratsa ezabatzea

Erbitzari zerbitzatua

Hainbeste giltza nituen
egundaino eta
alkoholaren errefuxioarena
baizik ez zait geratzen
patrikaren beltzaduran
izterra zulatzen
errauts zilindrikoari
putz egin
eta marmorezko mahaitxo
errekatangularretik
lurreko apalera
eror arazi eta min
egin diodanean
beherago eroriko ez dela

Garbia garbitu ezak
mostradoreko legena
zerbitzari nagiena
hire itzala ez duk
garbituko eta!

Kamareroen mafia

Presa. Istear. Besterik ez zuten nahi. Grekoa. Taberna trankatu, ia dena bildu. Gailuak itzali. Hankaz gora jarri aulkiak. Korrika erratza zorutik pasa. Gaua luzatu nahiean zebilen azken bezero hau nola uxatu. Baselina tartean dagoeneko urjentzia bi haiena. Egunez zerbait badira.

Gauez direnaren itzalak balira.

Mundurik balizkoeenetan txarrena hau
Aurkakoa diotena kabitzen direnen
Mundurik balizkoeenetan txarrena hau
Aurkakoa diotenen habi dela duzu edirenen

Gorantz begiratu eta izarrak
Gorantz begiratu eta Kajalaboralpopularra.

eromen egun infinitoa
desagertzearekin deman
amore emanez nahitaez

ez naiz ari
bero eta gozoegiaz
beste edozertaz
lizun ileak hazi zaizkio
euri oin meheari
basamortua berriz
jendetzenago ari

Heil! zerbitzari
Eu zurrunga egilea
hi heu herorren entzule
miloika desenlaze zeuzkak
zoritxar aitortuak

Zerbitzaria farregarri

Farregarri habilenean farre egiten diate
Irri egiten duanean enbiriatzen haute
Lehengo lepotik burua
Emaiek amaren kopeta ez duk eta
Hautsi hustu su eman
Odolarekin garbitu lurra
Eraikitzeko jaio berriro

zoritxarraren eguna zabaldu duk
ameskaiztoa egi bihurtu
esnatzeak adio dagio amets pozari
ez duk ona izango gizadia gorrotatze hori

Hiru edo mila milaka biratan
Laberintoa behin eta berritan
Inork mareatuko badik hik
Baina etsi ez erotu alferrik
Bilatu eta aurkitu nahi duana
Maitalea ziudadetik kanpo da
Bai nagusia sua bada
Eta ez itzalik aupara hazakeenik

Zerbitzaritzaren komeriak

Zerrikeriaz inguraturik zerbitzen
Ditut ogitarteko infame hauek
Oilasko gorpuak
Komedore zantar hau garbitzen
Nahikoa lan ez duk bada
eta garbitzen saia hadi mundua!

Agurtu gabe alde egiten diate
Hiretaz interesa erakutsi ondoren

Zertaz elikatzen haiz
Hainbeste biderkatzeko?
Zer haiz zer izen duk:
Maitagarri ala mesedegile?
Ala mihiztoek dioten
Loreetara gonbitoak
Botatzen dituen hori?

Aldegin behar dinat
Hire ondotik
Ezin ibil gintezken
Sakratuarekin arin

Zaharra bezain ibiltari fina
Beharko izan higana iristeko
Aber esan ezak zenbat kilo zirin
Prezisatzen diren
Hilik hobeto dauden
Zein edo zeinen
Utopiak erosteko

Beldurra somatu duk
irrintzi negargarrien
marruegileengan.
Bildots horrek ere
ez hau maite. Heure
bospasei mogimendu
bakarrik nahi dizkik

Esnatzen banaiz esna
berria naizenerako gaua.
Mota guztietako irekierak
antsi ditudanean
gilotinatzen nau
beheko dendariaren
ultramarinoko pertsianak

Heil nagusiaren ohean
hagoen enkargatu horri
hire gainetik ere
baduk ezpata zintzilik

Heil nagusi
hik ere heure onetik
ateratzen badakik

Barratik dakuskik ondarra eta plazerra
Barruan daramak ikusitakoaren mina eta kantzerra
Berriro jarri zaik —barre gutxi eta azala tenk—
Heure aldeko Barra-mutil, izu aurpegia
Gaizki ordaintzen dianari aurpegi txarra eta ez
Errespetagarriari txarki pagatzea trukean

Ez ahal hekien zerbitzari
bakoitzak bere kaka
laupikotan baino berea
baizik ez duela atsegin?

Ziutatean aberats baino
hobe herrixkan ondroso?

Itsumutila zer-suman

Kapitalist sistimaren
aurpegi galantakoaren
zimurretatik irristaka
malko ilun mikatza
hatza luzatuz
—uriaren ateetan
zimaurra kunetetan
kanposantutik ehun metru—
ihes doan gaztea
eta bere neke
bere nokierokoak

Eskaleak

«preguntan de onde eu sou
e non sei que respoender
pois de tanto non ter nada
xa non teño de onde ser»

Celso Emilio Ferreiro

Begira nazazu!
ea zertxobait badaramazun

baina, arren, ez portugesiñorik
abegi txarrez hartu
ez zikoitzkeriarik

bai, bufa bufa!
besteok ere
begiak baditugu eta
bufa bufoia!
guk ere
badakigu zeharka behatzen

errepara ezazu!
ea zuk zerbait zeurea badaramazun

Eskaleak gorrotatzen ditut
lo daudenean eskekoak gorrota
Eskaleak gorrotatzen ditut
Loaz halere teman eskean
Eskaleak gorrotatzen ditut
Haurren esku ahur zabalduak
Eskaleak gorrotatzen ditut
Haurren esku ahur zabalduak
Eskaleak gorrotatzen ditut

Lejiatan garbitzen dira
ihauteri hiletan
segizio mezetarako
errubako serpentinak

Zilarrezko dama
noizparteko batean
harrapatu dugunez
zatitu dezagun
zerrarekin edo nolarebait
eta har dezagun sarrera
soberan den txirbilarekin
eseririk urrezko katilutan
kaka egiten den
leku dezentzibakoetan

Sasi eta sastraken lar eta asunarteko
bidoi edo murko zikinetan harro da altxatzen
aberats-etxeetan gehien preziatutako lorea
Baina nik ez haren ezerren ezerrik beharrik
ezertarako

Mirabe mirarizale

Eta jan eta edatetik emateaz gain
Bere izatea ere emango lieken
Ostatuko zerbitzariak bere barruei
Galdetzen die ea
Zer negozio ote darabilten
Arnodiozkoa ote den
Buruan darabiltena
Bide ekarle eta eramaileek
Sartu eta atereaz agurtu gabetanik
Artean ikusi ez eta gehiago ikusiko ez duen
Badoan bezeria

Heure begiraden altxatzea den
Beste sexuko maitatuak
Ez dik jaramonik ere egin
Ez al dik halako zirrara bat
Egiten zerbitzari
Ezezagun horiei zerbitu
Eta agurrik gabe alde egitean?

A ze harria eza hirekin daukaguna

Izan garen politenak izan gara
Izango garenaren beldur bizian
irekiko diren zuloak
kontaturik daude zintzilik
gure lepoetan

Hau eta hura baina bakardadean hi
eta hire igoalak ez izan hire igoalak

Kaixo zer moduz zaude mirabetxo hori
galdetzen dizute erantzunik itxoin gabe
beren ahotsa entzuteko galdegina zerbitzari

Leinu beltzekoen ume gorriei «Nani» deritzaie

Berriro izu aurpegia jarri duk zerbitzari
Kaletik barrena maitasunaren bila
Zoro aurpegi begiak odolez blai
Erori haiz hirugarren aldiz

Via Crucis Via Crucis
Morroiak bat edo bi aberi
Zeruko begiak baleki
munduarentzat baten gorabeherak
balioso ez badira akabo
zertan ari gara zer esan du
zer egin du justizia nola akatu

Tira zerbitzari
Hitzak puta batzu dira zeinak
Hobekien maneiatzen dituzten
Hobekien pagatu eta babestuko omen dituzten
Proxenetekin joaten baitira

egidazu nitaz beste emakume bat esan zidan
muxala domatu beharko diagu
ezina erosi eta beharrezkoa saldu

Geure bizi destartalatuen
ehortzaile narratsak
ahanzmenaren mertzenarioak aitzur karkatx eta
listo-ttu!
atsedenik ez du

Telebistaren kolore ederretan
Dakuskite beste horiek bizitza gustorago
Ez esan zer egin kolore berriak lortzeko
Baxuena ere egingo lukete eta

Konpitta txuriak
Eskaleen otordu
Aberatsen orduan

Nagusiarentzako langile

Nabaria da leizea
Bi munduen artean
Aberatsa abere
Baina abereago
Langilea halere
Produkzioan harendako

Miloika lagunek
Lana dute
Lana errazago
Beste edozer baino

Langabetuak berriz
Herabe
Soberan sobrare

Lana dute eta
Burjesen aburua
Heuren buruetaz

Gizaixo deabruak!
Nagusientzat zarete
Famelikoak milaka
Txit printzipal
Bakan batzuentzat

Gizaixo deabruak!
Orduan eta langile gehiago
Deabruaren makinariarentzako
Gizaixo deabruak
Denak ala denak

Ez nator gaur zabar zuregan idaztera komuna. Iada indioek ezingo dute burnizko zaldia ehizatu sekula.

Heroi erori horiei
esan behar diet
guztien begi bistan
ibar-ertzera doazela
iladan nire herrian
gizonezkoetan gizonenak
nigar egitera franko

Nolatan eduki heroirik
Nortzuekin amestu
Norberak uzten omen munduan
Bere arnas puntua eta iada
Eguratsa kargatuegia dago
Nola eman heroiei animorik
Heuretzat ez badituk

Hi bizi haiz hi
Alfer-alferrik
Gelako portafotoak hutsik dituk

Zergatik egiten dute buila
baraurik ez badaude
Presaz akabatzen eskatzen
dute inora ez joateko gero

Azkenean Goiz sentia lo egin dezaket Agur Biliar arte
mina Lo lasaia Ezina gau beltzean lokartzerik Bai argitan
Ez da barkamenik Bakarkakoena da nire etnia